

 ARGIA.EUS/LARRUN


IZOKINA EUSKAL HERRIAN

ARRAIN ETA ONDARE



LARRUN #267

SAREA HEMEN, LISKARRA HAN



EGILEAK | **JOSU NARBARTE HERNANDEZ ETA IÑAKI SANZ-AZKUE**
AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

Historia luzeko soka du izokinak Euskal Herrian. Istorio ugari sortu ditu, hasi Historiaurretik eta egun arte. Haren arrantzak garrantzia sozio-ekonomiko handia izan du, eta hala sortu ziren hura erregulatzeko arauak. Atzetik etorri ziren gero, ordea, arau-haustea, herritarren eta

herrien arteko gatazkak, auziak, eta kasuren batean, baita hilketak ere. Izokin atlantikoak gure ibaietan jarrai dezan borrokan ari garen honetan, ia ezinbesteko lana da mendez mende haren inguruan sortu diren istorioak eta gerta-kizunak ere gizarteari zabaltzea. Izokina, arrain bat ez ezik, ondarea ere badelako.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.752 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2021eko urriaren 31

**EKAIN**go kobazuloko izokinaren irudia.

EUSKADI.EUS / EUSKO JAURLARTZA

Historiaurreko marrazki bat, Erdi Aroko Edward I. errege ingelesa, Baionako burgesak, Hondarribiko zein Donostiako alkatetxak, Urumea ertzeko baserriak eta sagardogileak, Orreagako kalonjea eta Marinako komandantea. Sinesgaitza dirudi, baina izan da historian horiek guztiak lotu dituenik. Egun, euskal gizartean ez zaio apenas garrantzirik ematen, baina oraindik ere dokumentu zaharretan zein adineko gizon-emakume askoren memorian txoko bat gordetzen du: izokina da. Euskal Herriko gaur egungo herritarren iruditegian bertako ibaietatik baino Norvegiatik gertuago dagoen arrain honek izan duelako gure historian bere lekua, eta ez nolanahikoa.

Izokinak, bizi-zikloan zehar korronte eta itsaso zabalaren kontra borrokatzea gutxi balu, nasa, sare eta kanabera bidezko arrantzaren kontra egin behar izan du urtez urte, bai eta bere bizilekuan gizakiak sor-

tu dituen inpaktuen kontra ere azken mendeetan. Orain, izokinaren populazioak berreskuratzeko ahalegin betean gauden honetan, garrantzitsua da haren balio ekologikoaz hitz egitea. Horri, ordea, gizarte mailan ondare historiko gisa duen balioa ere gehitu beharko litzaioke. Bida-soako *lehenbiziko* izokina arrantzatzea ez baita historian zehar izokina eta euskal gizartearen artean izan den harremanaren arrastoetako bat baizik. Bota dezagun, beraz, sarea dokumentu zahar eta elkarrizketetan, eta ikus dezagun zer ekartzen digun izokinaren arrantzak.

GIZAKIA ETA IZOKINA: HISTORIAURRETIK XXI. MENDERA

Iberiar penintsula iparraldean, hainbat eremutan, historian gizakiak eta izokinak izan duten harremanaren aztarnak aurkitu dira. Hala, Urumea bailaran dauden Aizpitarteko kobe-

tan, esaterako, hezurrez edo adarrez eginiko arpoiak aurkitu izan dira, eta amuak, arrainen arantzekin eginak. Horrek, frogatzen du, besteak beste, arrantza jada bazela Historiaurreko jardura bat, fruitu-bilketarekin eta ehizarekin batera.

Madeleine aldiko artistek, duela 14.000 urte egindako marrazkietan izokinaren irudiak utzi zituzten, ehizatzen eta arrantzatzen zituzten beste hainbat animaliarekin batera. Horren adibide ederra dugu Ekain kobazuloan, Debako arroan. Bertan agertzen den marrazki batek arrain baten irudia erakusten du. Historiaurreko gizakiek egindako izokin baten irudia da, hain zuzen ere.

Historiaurreko gizakiaren eskuak koban egindako marrazkietatik dokumentu zaharretara, eta horietatik oraindik ere bizi diren hainbat lekukoren memoriara, saltoka iritsi da izokinaren historia luzea gugana.

ARRANTZA-MOLDE ESPEZIALIZATU BAT: IZOKIN-NASAK

Mende luzez, izokin-arrantza eskala handian gauzatu zen euskal kostan, nasa izeneko tranpen bidez. Elementu horien errepresentazioak ohikoak dira euskal kostaren mapa zaharretan, ibaiak alderik alde zeharkatzen dituzten V itxurako egitura gisa. Haien diseinua izokinen ziklo biologikoaren ezagutza oinarritzen zen: helduak ibaian gora igotzen direla jakinik, haien bidea oztopatzea zen funtsa, ibai edo itsasadarren hondoan egurrezko hagak sartuta eta horien artean adarrez osatutako sareak eginda. Hala, arrainak inbutu-formako ibilbide batean sartzen ziren, eta arrantzaleek aisa harrapatu.

Elementu horiek eraiki eta mantentzeak lan- eta baliabide-inbertsioak eskatzen zituen, eta ez nolanhikoak, bereziki ur-korrante

**NASAK, EGITURA
PRODUKTIBO
ESPEZIALIZATUAK
IZATEAZ GAIN,
BOTERE-HARREMANAK
EGITURATZEKO
TRESNAK ERE IZAN
ZIREN ALDI BEREAN,
ARRANTZA-BALIABIDEAK
ZENTRALIZATZEKO ETA
TOKIKO KOMUNITATEEN
BAITAN INKLUSIO/
ESKLUSIO DINAMIKAK
EZARTZEKO AUKERA
EMATEN BAITZUTEN**

handiak ziren inguruetan. Hortaz, nasak, egitura produktibo espezializatuak izateaz gain, botere-harremanak egituratzeko tresnak ere izan ziren aldi berean, arrantza-baliabideak zentralizatzeko eta tokiko komunitateen baitan inklusio/esklusio dinamikak ezartzeko aukera ematen baitzuten.

AIPAMEN ZAHARRENAK ERDI AROAN, BAIONAN

Nasa bidezko izokin-arrantzaren aipamen zaharrenak Erdi Arokoak dira. XIII. mendean, Baionako portua merkataritza-gune garrantzitsua zen Akitaniako dukerriaren eta, horrenbestez, Ingalaterrako erresumaren baitan. Salgai gehienak urez garraiatzen ziren: itsasoz lehenik, eta Aturriren itsasadar luzean zehar gero, Gaskoinia barnealdeko lurretarantz; edo Errobin gora, Lapurdirantz eta Nafarroarantz. Gauzak horrela, hiria bere



IZOKIN-ARRANTZAren irudiak Oloroeko (Biarno) katedralean. XII. mendea.



JOSU NARBARTE

GIXUNEKO GAZTELUA (Lapurdi, XIII. mendea), Aturriren gainean. Haren oinetan zegoen Saubainhactarren nasa, Erdi Aroan.

interesak babesten saiatu ohi zen, nabigazio-askatasuna oztopatzen zutenen aurka. Horien artean zeuden izokin-arrantzarako nasak, ibaian gora eta beherako mugimenduetan arazoak sortzen zituztenak.

Ezagun dugun nasa zaharrena Gixuneko gaztelu azpian zegoen, Mirepeix irlaren ondoan, Aturrik eta Biduzek bat egiten duten tokitik hurbil. 1277an saldu zion Inglaterra-ko Edward I.ak Baionako Arnaut Saubainhac nobleari. Errobin, berriz, Edward II.ak 1289an eman zion baimena Akizeko Gilen Sensac apaizari, Berriozko portutik hurbil egitura berri bat egin zezan. Bi erabakiek protesta hiratuak piztu zituzten Baionako merkatarien

zein arrantzale pobreen artean eta, 1295ean, erregeak Edmond Lancaster seneskala igorri behar izan zuen bitartekaritza-lanak egitera. Lortutako akordioaren arabera, nasa-jabeek beren egituren zabalera murriztu beharko zuten, aurrerantzean ibaien zati bat nabigaziorako libre utzita. Gainera, abenduaren 25etik ekainaren 24ra debekatuta egongo zen arrantza egitea, eta zerga bereziak ere ezarriko ziren arrantzatutako izokinen gainean.


Baldintza horiekin, bidea zabalik zen nasak egonkortu eta berriak eraikitzeko. 1309an, Baionako Biele familiak eskuratu zuen baimena, Ahurti aurreko uretan nasa bat ezartzeko. Haatik, Piarres-Arnaut

Bielek itsasadar osoa ixten zuen egitura handia eraiki zuen; horri esker, urtean 1.000 liberako errenta lortu zuen, baina trukean hainbat ontzi hondoratzea eta zenbait gizon itotzea eragin zuen. Egoeraz nardaturik, subainhactarrek gidatutako multzo batek bieletarren etxeei eraso eta nasa erre zuen. Istilu zenbaiten ondoren, Edward II.ak nasaren jabetza berretsi zion Piarres-Arnauti 1320an, betiere gehiegikeriak egitea debekatuta.

Mirepeixeko nasa, berriz, 1339an saldu zion Amanieu Sabainhacek Gixuneko gazteluko jaun berria zen Piarres Albreti. Badirudi jabe berriak egitura profitatu zuela nabigazioa oztopatu eta itsasadarra

Izokin Atlantikoa

Euskal Herriko ibaietan



Izokin atlantikoa (*Salmo salar*) salmonidoen familiako arraina da.

Anadromoa da, alegia, itsasoan egiten du bere biziaren zati handi bat, eta ugaltzeko ibaian gora egiten du. Izokina, beraz, ur gaziaren eta gezaren artean mugituko da. Erriean jaioko da, eta bertan igaroko ditu bere bizitzako lehen hilabeteak. Euskal Herrian, izokinek urte bat eta bi urteren artean egiten dute ibaian, eta gutxienez 12-13 cm-ko luzera dutenean, itsasora migratzen dute, udaberri inguruan. Izokinek apirilean eta maiatzean izaten diren euriteek sorturiko ibaien hazierak baliatzen dituzte uretan behera egiteko. Hala, euren bizi-zikloaren une garrantzitsu batera igaroko dira: ur gezatik gazira pasatzeko momentua iristen da, eta horretarako, aldaketa ikusgarriak jasaten ditu, bai gorputzaren forman, baita jarreran ere. Nabarmenena dudarik gabe, osmosia erregulatze-ko duen sistemarena da, kanpo-ingurune-ko eta gorputzeko gatzaren maila orekatzen duena. Horrez gain, gorputzean ere aldaketak izaten dira, luzatu egiten dira, eta zilar kolorea hartzen dute, urdin arrasto batzuekin. Jarrerari dagokiolarik ere ezberdintasunak antzeman daitezke, bakarrik eta leku nahiko jakinetan bizi diren animalia oldakorrak izatetik, taldean ibiltzera pasatzen dira.

Ibaitik itsasorako bidaia horretan, izokin gazteak, edo *izokikumeak* (dokumentu askotan agertzen den moduan) taldean jaisten dira bokaleraino. Bidaia horretan, jaiodiren ibaiaren ezaugarriak “memorizatzen” dituzte. Izan ere, itsasotik bueltan, ugaltzera datozenean, haiek jaiotako ibaira bueltatuko dira.

Bokalean aldaketa epe bat igaro ostean, itsasora joaten dira izokinak, eta bertan bidaia luze bati hasiera emango diote. Feroe irlak, Labrador, Islandia eta Groenlandia ingurura joango dira, haien jaiolekutik 5.000 kilometro baino gehiagora. Talde txikietan pilatuta, krill-a jango dute bertan, eta pixkanaka tamainaz handitzen hasiko dira, berriz ere, ugal-garaia iristean, jaiotako ibaira bueltatzeko, ingelesez “homing” edo “etxeratzea” izeneko bidaian. Itsasoan igaro duten urte kopuruaren arabera aldatuko zaie pisua. Arruntan 2-3 urtekoak izan ohi dira gure ibaietan, eta 2-4 kg artekoak.

Bueltakoan, izokinak kostaldean izango dira, eta ibaiek haien bokaletatik botatzen duten urari esker, jaiolekua dagoen erria identifikatuko du. Euskal Herrian, Lapurdi, Nafarroa iparraldea, Gipuzkoa eta Bizkaiko ibaiak dira izokinak jaso izan dituztenak, nahiz eta haien artean alde nabariak dauden batetik bestera. Batzuk izokin ibai ezagunak eta garrantzitsuak izan diren moduan, badira ere izokinarentzat horren erakargarriak izan ez direnak ere.

Behin ibaiak identifikatuta, izokina bokalean egongo da epe batean, berriz ere ur gezara ohitzeko. Garai horretatik aurrera, izokinek jateari utziko diote, nahiz eta hasieran aurre egiteko instintua mantenduko duten, arrantzaleen amuak heltzea egiten diena.

Negu amaiera inguruan hasiko dira igotzen izokinak. Handienak hasieran, ondoren, pixkanaka, txikiagoak etorriko dira. Izokinak erriean sartzen joango dira udaz-

kena arte. Erriean gora egingo dute korrontearen, arrantzaleen eta ibaian gora igotzea zailtzen dieten presen kontra. Azaro amaieran hasi eta urtarrila erdira arte ugalketa gertatuko da.

Ugaltzeko, sakonera gutxiko leku legartsuak behar dituzte izokinek, eta ugal-aurreko momentuak ederrak izaten dira. Emea zorrotza da arrautzak jartzeko lekua aukeratzeko garaian. Behin aukeratuta, “ohea” egingo du, arrautzak jartzeko lekua prestatuz. Orduan, bere inguruan arrak agertuko dira, eta emea estaltzeko lehia hasiko da. Ugalketa prozesu deigarria da. Arra eta emea bata bestearen ondoan jarriko dira, igeri biak. Arra, noiz-behinka, emera gerturatzen da, eta gorputz osoarekin dar-dar antzeko bat egingo du, emea estimulatuz. Klimaxa lortzean, emeak arrautzak botako ditu, eta arrak horiek ernaldu. Amaitzean, emeak harriz estaliko du eremua.

Prozesu horretan, bada kuriosoa bezain garrantzitsua den gertakari bat. Oraindik ere itsasora jaitsi ez diren izokin kume batzuk estaldura momentua aprobetxatzen dute izokin handien artean sartzeko, eta arra konturatu gabe, emeak botatako arrautzen zati bat ernaltzen dute. Hala, emeak askaturiko arrautzek ez dute beti aita bera izango.

Horrela jaioko da belaunaldi berri bat, eta ugaltu diren heldu asko, oso ahul, hil egingo dira, edota asko jota, urak haien burua erriean behera eraman dezala uzten dute, itsasoraino bideratu, eta berriz jaten hasteko, baldin eta indarrik badute.

zeharkatzen zuten merkatariei bidesariak eskatzeko; baionarren protesten aurrean, Edward II.ak egoera lehengoratzeko agindu behar izan zion bi urte geroago. Behe Erdi Aroan, hainbat noblek lortu zuten nasaren kontrola: besteak beste, Gerard Tartas zen jabea 1372an, eta Karlos Beaumont, Nafarroako alfereza, 1409an. 1582an, berriz, Bidaxuneko Agaramont leinuaren esku zegoen.

Egoera nabarmen aldatu zen 1578an Aturriren itsasadarraren norabidea aldatu ondoren. Port-d'Albreteko itsasoratze zaharra (egun Vieux-Boucau, Landak) baztertuta, bokale berri bat ireki zen Angelu eta Tarnoze artean, hiriari itsasoarekiko lotura askoz ere zuzenagoa eskainiz. Horren kariaz, ibaisareko trafikoak ere arras azkartuko ziren, eta nasek oztopo baino ez zioten egiten joera horri. 1584an, Luis Foix ingeniariak aholkatuta,

Bordeleko Parlamentuak izokin-nasa guztiak desagiteko agindua eman zuen.

TENTSIOA BEHE BIDASOAN

Bidasoan ere, merkataritza- eta arrantza-jardueren arteko tentsioaren erdigune izan ziren izokin-nasak. 1203ko hiri-gutunaren arabera, Hondarribiko hiribilduari zegokion itsasadar osoaren zein bertako baliabideen jabetza; baina bertako udalak inguruko jauntxoekin negoziatu beharko zuen eskubide horiek gauzatzeko modua. Hala, 1299an ituna sinatu zuen Irungo Lastaola etxeko jaunarekin; Joan Martin Lastaolak Bidasoan zeukan nasa mantendu ahalko zuen, betiere itsasadarraren herena nabigaziorako libre utzirik, Nafarroatik heltzen ziren trafikoak babesteko. Jauna hiltzean, nasaren jabetza Zuberanoako monasterioaren prioreak jasoko zuen.

Hondarribiko Udalak ere bazuen bere nasa propioa Bidasoako uretan, Elorregiko ibian kokatua. Hiribildutik urrun egonik, badirudi egitura horren kudeaketak burohausteak sortzen zizkiola, Irungo, Urruñako zein Biriaturuko auzoek baimenik gabe arrantzatzen baitzuten inguruan, eskubiderik izan gabe. Hortaz, 1489an, akordioa sinatu zuten Biriaturuko Buniort etxeko andre Domenja Hiribururekin; nasa zaintzearen truke, etxe horrek urtero diru- eta izokin-errenta bat jasoko zuen aurrerantzean.

Nasen kontrolak paper garrantzitsua jokatu zuen Erdi Aroaren bukaeran Behe Bidasoak bizi izan zuen tentsio-giroan. Urruñako Urtubia etxeak gidaturik, 1509an Lapurdiko herritarrek ukatu egin zuten Hondarribiak itsasadarraren jabetza osoa zuenik, eta haiek ere nabigatzen eta arrantzan hasi ziren. Hiribilduko udalak Elorregiko nasa



NAGORE LEGARRETA

errentan hartuta zeukaten irundarrei egotzi zien egoera hartaratu izana, “lapurtarrei sareak botatzen eta arrainak hartzen utzi baitiete, inoiz halakorik egin izan ez bada ere”. Giroa bizkor gaiztotu zen, bi aldeak errepresalia eta kontra-errepresalia espiral betean murgilduta. Besteak beste, hondarribiarrek Zubernoako monasterioari eraso egin eta haren nasari su eman zioten, marearteko eremuan egonik haien jurisdikzioa urratzen zuela argudiatuta. Erantzun gisa, lapurtarrek Elorregiko nasa desegin zuten. Azkenean, Gipuzkoako korrejidorearen zein Baionako seneskalaren esku-hartzeak baretu zuen giroa, 1511n agindu baitzuten egoera lehengoratzeari.

Alabaina, 1532an Domenja Hiri-bururen senideek salatu zuten Hondarribiko Udala ez zitzaizela 1489an

hitzartutako errenta ordaintzen ari. Ondorioz, buniortarrak libre sentitu ziren ituna hausteko, eta 1533an nasa berri bat egin zuten Alunda inguruan. Hondarribiak salaketa jarri zien bere jurisdikzioa urratzeagatik, baina Biriaturko jauntxoek Urtubiako andrearen babesarekin jaso zuten; Alundako egiturak kalterik pairatuz gero, Elorregiko nasa suntsituko zuela hitz eman zuen. Hiribilduak gizon armatuak jarri behar izan zituen gau eta egun nasa zaintzen.

Ez ziren istiluak hor bukatu. 1573an, irundarrak izan ziren Behobiako Pausu ondoan nasa bat eraiki zutenak, lehenago ere halakoak izan zituela eta lapurtarren eskubide bera zutela argudiatuta. 1574ko udaberrian hasi ziren izokinak arrantzatzen, baina Hondarribiak berehala jarri zien salaketa,

eta Errege Kontseiluak urte bereko irailean agindu zuen egitura bertan behera uztea.

TOKIAN TOKIKO ARAUAK, HARREMANAK ETA GATAZKAK

Nasen inguruko araudia ez zen berdina izan euskal kosta osoan. Bizkaian, Foru Zaharrak arrantza-askatasuna xedatu zuen XV. mendean. Nasek talka egiten zuten printzipio horrekin, arrantzaren gaineko monopolioa lortzeko tresna gisa baliabiltzitezkeen; ondorioz, elementu horiek desagertu egingo ziren Bizkaiko paisaiatik. Gipuzkoan, Deba eta Oiartzun ibaietan, tokiko araudiek arrantza zentralizatzeko egiturak ezartzea debekatu zuten Behe Erdi Aroaz geroztik. Urumean ere, 1564ra arte izokinaren arrantzarako baimenak errentan ematen zi-



BIDASOAKO NASAK kartografia historikoan. Ezkerrean, goian, 1609ko plano batean: Elorregiko nasa (“salmonera de F. Rabia”) eta Zubernoako nasa (“naças de Frâcia”). Ezkerrean, behean, 1753an, Zubernoako monasterioa (“Hôpital de S. Jacques”), marea-errotaz (“nasse du moulin”) eta nasaz (“nasse du Prieuré de Sibornea”) hornitua. Eskuinean: Zubernoako nasa (“nasse”), 1719an. Iturria: Simancaseko Artxibo Orokorra / Frantziako Liburutegi Nazionala.

tuzten Donostiako zein Hernaniko udalek, enkante publikoan; baina, urte horretatik aurrera, bizilagun guztientzako libre utzi zuten.

Lapurdiko zein Gipuzkoako gainerako estuarioetan, aldiz, nasak eguneroko paisaiaren parte izaten jarraitu zuten, eta ez ziren gutxi izan haien inguruan piztutako gatazkak.



**BIZKAIAN,
FORU ZAHARRAK
ARRANTZA-ASKATASUNA
XEDATU ZUEN
XV. MENDEAN. NASEK
TALKA EGITEN ZUTEN
PRINTZPIO HORREKIN,
ARRANTZAREN
GAINEKO MONOPOLIOA
LORTZEKO TRESNA GISA
BALIA BAITZITEZKEEN;
ONDORIOZ, ELEMENTU
HORIEK DESAGERTU
EGINGO ZIREN BIZKAIKO
PAISAIATIK**

ORIA: NASAK NONAHI


Oriako itsasadarra da, agian, euskal kostan nasa-kontzentrazio handiena erakusten duena Aro Modernoan. Kontuan atxiki behar da estuarioaren hegoaldeko Andatza eta Iria mendiak Orreagako Kolegiataren jabetza izan zirela XIV. eta XIX. mendeen artean. Hortaz, Pirinio aldeko kalonjeek zeresana izan zuten itsasadarreko izokin-arrantzaren inguruan ere. 1518an, adibidez, auzia piztu zen monasterioaren eta Orioko Udalaren artean, Itzaoko paduretan zegoen nasa nori egokitu. Epaia oriotarrei aitortu ba-

zien ere ibaiko nasa guztien jabetza, padura Orreagaren esku utzi zuen; nasa instalatzeko ezinbestekoa zenez bi erriberak lotzea, funtsean elkar ulertzeraren kondaturik gelditu ziren alde bata zein bestea.

Aginagako komunitateak ere bazituen bere nasa propioak. XVI. mendean, Saria zein Arruarteiko nasak ageri dira bere esku; 1562an eta 1580an errentan eman zituen, besteak beste, zorraz kitatzeko xedez. Garai berean, Urdaigako eta Atxe-

gako dorretxeek ere beren nasa propioak zituzten; Girondako nasa (egun Nasazar izena duen uhartearen alboan), berriz, hainbat jaberaren artean banatuta zegoen.

XVII. eta XVIII. mendeetan, nasakopurua ugaritzen joan zen Oriaren behe-ibilgu osoan: Aginagan, Usurbilen, Zubietan, Lasarten eta are Villabonan ere. Udal-erakundeek ez ezik, jauntxoek, ontziola- zein burdinola-jabeek edo, besterik gabe, inbertsore pribatuek sustatuta eraiki-



Donostiako izokin arrantzaleek euren kexarekin batera aurkeztu zuten marrazkia, Hernaniko Ezioko errotan zegoena ulertarazteko.

Izokin-arrantzaren ahozko testigantza ederrak

1 919an jaio zen Joxe Oiarbide *Ttanttua* zenak ere azaldu zituen bizi izan zen ia mende beteko urteetan izokin kontuak nolakoak ziren. Ttanttotarrak arrantzale amorratuak ziren, eta izaten zituzten haserreak batzuetan Altzutarrekin. Haiek ere arrantzale sutsuak izan, eta izokin-arrantzan aritzen baitziren denak. Komeni zenean, orde, elkarlanean ere aritzen ziren, Oiarbidek kontatu zuen moduan: "Izokina nik ikusi dudana handiena, 6 kilo eta erdikoa. Epele-Etxeberriko presaren azpian, eta han harrapatu genituen bi. Orduan altzuetarrak eta gure aita eta denek sozio egin zuten. Bazekiten handiak zirela, eta, sareak eta jarri zituzten, eta bat harrapatu zuen gure aita difuntoak, sarea jartzen ari zela. Handiena hark harrapatu zuen."

Berrogeiko hamarkadan, orde, Urumea ertzean ezarritako paper fabrikak direla-eta, ibaia- ren ur-kalitatea izugarri jaitsi zen, eta izokina desagertu egin zen erriotik. Laurogeiko hamarkadan, uraren kalitatea berreskuratzeko egindako lanei esker, eta izokinek presak igarotzeko egindako eskalak direla medio, izokin populazioa berreskuratzen hasi zen. Asko badira ere azken urteetan egindako aurrerakuntzak, izokin-arrantza debekatuta dago Urumea bailaran. Espeziearen kontserbazioan dago jarria begirada.

tzen ziren, izokin-arrantza etekin handiko jarduera zela erakutsiz. Gatazkak ere ez ziren urriak izan; Gipuzkoako Batzar Orokorrek aginduta, nabigazioa bermatzeko nahitaezkoa zen gutxienez ibaia- ren herena libre uztea, eta araua ez zen beti betetzen.

UROLA: NASAK, EZ BAINA BAI

Urolaren kasuan, Zumaiako eta Getariako udalek 1416an egin zuten akordioa, bi herrietako biztanleek itsasadarrean nabigazio- eta arrantza-askatasuna izan zezaten. Horren arabera, zumaiarrek bertan eraikitako nasak desegiteko eta etorkizunean berririk ez egiteko konpromisoa hartu zuten, eta 1584ko Udal Ordenantzetan berretsi.

Haatik, arauak itsasadarraren bokaleari baino ez zion eragiten; barnealderantz, Zumaiako Udalak bere nasa propioa zuen Oikiako erriberetan, eta hori gatazka iturri izan zen auzo horretako biztanleekin. 1610ean, adibidez, Dornutegi baserriko errotazainari nasa kaltetu izana leporatu zioten, eta isun handia jarri. 1680an, aldiz, Oikiako bikarioa izan zen bere nasa propioa eraiki zuena, eta udalak salaketa paratu zion Gipuzkoako korrejido- rearen aurrean, izokin-arrantza udal-monopolioa zela argudiatuz. XVIII. menderako aldiz, desagertu egin dira Urolako nasen aipamenak.

BIDASOA: MONOPOLIO ZURRUNA

Bidasoan, Hondarribiko Udalak ia lauhun urtez defendatu zuen Elorregiko nasak eskaintzen zion monopolioa (XV-XIX. mendeak). Gainerako ondasun publikoak bezala, egituraren kudeaketa urtero ematen zen errentan. Enkante publikoan administratzaile bat izendatzen zen, eta honek erren-

ta bat ordaindu behar zuen izokinak harrapatzeko eskubidearen truke. Gainera, hiribilduko merkatuan arraina prezio tasatuetan saldu behar zuen, eta udalari urtean zehar zenbait ale eman, festa nagusietarako.

Administratzailearen ardura zen, halaber, nasaren monopolio- eskubidea bermatzea, inguruan arrantzan ibili nahi zutenei bidea eragotziz. Zenbaitetan, nasa berriak eraikitzeko saiakerak salatu behar izaten zituen; besteak beste, 1771n, irundarren aurka, eta 1797an, urruñarren aurka. Beste batzuetan, nasari oztopo egiten ziotenak jazarri beharko zituen, baita kanaberak edo tresmailak erabiliz Bidasoan arrantzan zebiltzanak ere. Ohikoak izan ziren Biriaturko Aruntz etxearen jabeekiko tirabirak; 1753ko mapa batean adierazten denez, udalak errenta ordaintzen zien horiei, nasa haien lurretan kokatzearen truke, baina 1770ean eta 1774an diru-kopuru hori emendatzea eskatu zuten. 1788an, nasaren administratzaileek salatu zuten etxeko jabeak ez ziela baimenik ematen nasa bere lurretan egonkortzeko. Horrek eragiten zizkien galera ekonomikoen aurrean, udalak laurden batean gutxitu behar izan zien nasaren errenta.

URUMEA: DONOSTIAKO SANTA KATALINA ZUBITIK IZOKIN-ARRANTZAN

Urumeako itsasadarrean, izokin- nasak jartzeko eta ustiatzeko eskumena Donostiako eta Hernaniko udalen esku egon zen XVI. mendean, eta haiek errematean ematen zuten errenta baten truke. Egoera 1564an irauli zen; urte horretan, bi udalek bizilagun guztiei zabaltu zieten izokinak arrantatzeko aukera, eta bertan behera gelditu ziren iraganeko monopolioak.

Izokin-arrantzarako sareak biltzeko torniketeta Aturriren itsasadarrean.
Ahurti (Lapurdi), XIX. mende bukaera.



WIKIMEDIA

Araudi berriak izokin-arrantzan aritzeko aukera eman zien ibaiaren inguruko herritar guztiei, aberats zein pobre, Donostiatik Goizuetaraino; baina arazo berriak ere ekarri zituen. Alde batetik, espeziearen gaineko presioa areagotu egin zen, kontserbazioa zalantzan jartzeraino. 1769an egindako txosten batean, Hernaniko Udalak izokin-arrantza debekatzea proposatu zuen urritik urtarrilera bitartean, hots, errute-garaian; gainerako hiletan, arrantza baimenduta egonik ere, amuz edo sarek baino ezin zitekeen arrantza, eta sareek neurri jakin batzuk izan behar zituzten, gainera, arrain txikiegiak ez harrapatzeko eta ibaiaren zabalerara osoa ez ixteko. Nasak, beraz, ez ziren aurrearrantzean zilegi izango Urumeako uretan.


Beste aldetik, herritarren zein herrien arteko gatazkak ere uga-

ritu egin ziren. 1816an, adibidez, Pascual Zuaznabar eta beste herritar batzuen kontrako auzia izan

**BUELTAKOAN, IZOKINAK
KOSTALDEAN IZANGO
DIRA, ETA IBAIEK HAIEN
BOKALETATIK BOTATZEN
DUTEN URARI ESKER,
JAIOLEKUA
DAGOEN ERRIOA
IDENTIFIKATUKO DUTE**

zen Hernanin. Arrazoia: Urumea ibaian arrantza kontuak zirela-eta, izan zuten eztabaida baten ostean

hildako bat eta zauritu bat izan zirela. 1824an, berriz, Urumea bai-larako herrien artean izan ziren haserreak. Goizuetako, Aranoko eta Hernaniko Udaletako ordezkariak, alkateak barne, Donostiako Udaleko ordezkariekin bildu ziren Loiolako plazan (Donostia) eta Orreagako kalonjeen ordezkari bat ere bertaratu zen —Artikutzako parajea eta bertatik iragaten den Añarbe erreka monasterioaren jabetza izaki—. Aurreneko hiru herriak kexu ziren, Donostian eta Astigarragan izokinak harrapatzeko jarriak zituzten nasek ez zietelako arrainei erriogan gora igotzen uzten. Horrek bi kalte nagusi sortzen zituen: batetik, Urumean gora bizi eta izokin-en arrantzan aritzen ziren familiak ezin zutela lanik egin. Bestetik, izokina itsasotik erriorako bidean zihola harrapatzen zutenek, arrainek ez zituztela arrautzak jarriko



Izokinak harrapatzeko baro sare-sistema, Errobi ibaian. Kanbo (Lapurdi), 1907.

Cambo-les-Bains. — Le « baroa », engin de pêche au saumon.

Photo Ouyard, Biarritz-Bayonne

Urumeako goiko erreketan eta, hala, etorkizunean ez zela izokinik izango Urumean. Horrek kalteak sortuko zituen bertako ekonomian eta ingurumenean, Urumea ibaian arrainaren etorkizuna bera kolokan jarritz.

1841ean, Hernaniko Udalak As-tigarragako zenbait herritar salatu zituen, Olatxo baserriaren aurrean ibai osoa hartzen zuen nasa bat ezartzeagatik. Haiek erasoz erantzun zuten, Donostiako Santa Katalina zubian zein Hernanin, Ezioko errotaren eta Pikoagako burdinolaren artean, antzeko egiturak paratzen zirela-eta. 1846an antzeko salaketa bat egon zen, Er-gobiko pausuan tresmailekin egindako izokin-arrantza baten harira; eta 1868an, Donostiako Txurriategi baserri aurrean paratutako beste nasa batengatik.

Sonatua da ere urte batzuk beranduago, 1879an, izokin-arrantzan aritzen ziren hamazazpi donostiarrek jarri zuten kexa. Kezkatuak ziren Marinako komandanteak hiriko Santa Katalina zubian izokina arrantzatzea debekatu zielako. Sinatzaileek ziotenez, urteak ziren izokin-arrantza egiten zutela bertan eta gehienentzat familiaren sostengu bakarra zen hura. Santa Katalinako zubian izokina arrantzatzeko debekua Urumea erriorearen itsasoratzea 500 metro baino gutxiagora zegoela oinarritzen zen. Sinatzaileek, ordea, eurek neurtu zutela eta 577 metrora zegoela argudiatzen zuten. Alegia, arrantzatzeko eskubidea zutela.

Hori gutxi balitz, Donostiako Udaleria bidalitako agirian, erriorean gora, Hernaniko Osiñaga auzoan legea betetzen ez zuen izokinak harrapatze-ko tranpa formako parapeto bat ere

bazela salatu zuten, eta hari buruzko xehetasun guztiak ematen zituzten eskuz egindako marrazki eder bat gehituta. Hernaniko Ezio errotan bi nasa zituzten jarriak aldeaz alde, eta horiek sartzen ziren izokin guztiak hartzeko aukera ematen zien jabeei. Donostiako arrantzaleen arabera, izokinek ezin zituzten horiek zeharkatu, eta soilik urak hazita zetoze-nean zuten hura gainditzeko aukera. Laburbilduz, nasak arazoak sortzen zituen izokinek erriorean arrautzak errun ahal izateko. Era berean, ur-biltegi bat ere bazuen errotak, erriorean jaiotzen ziren *izokiseme* edo izokin kumeak harrapatzeko aukera ematen zuena. Arrantzale donostiarrek Santa Katalinako zubian arrantzatzeko debekua injustizia batean oinarritua zegoela zioten. Hernaniko errotak kalte handiagoa egiten zuela eta haren kontra ez zela ezer egiten

zioten. Horrez gain, kexa adierazten zuten, haiek mareen arabera arrantzatu behar izaten baitzuten, herna-niarrek urte osoan egiteko aukera zuten bitartean.

Dokumentuek adierazten duten moduan, beraz, gatazkak eta haserreak ez ziren gutxi izan izokin arrantzaleen eta herrien artean. Izokin-arrantza ez zelako aisialdiko gutizia, familia askorentzat sostengua zen ofizioa baino.

LIBERALIZAZIOAREN GARAIAK

Nasei lotutako arrantza-eredua XIX. mendean desagertu zen, estatu liberalaren eraikuntzan jabetza pribatuaren eta merkatu-askatasunaren defentsak izan zuten garrantziaren kariaz. Arrantza Ipar Euskal Herrian liberalizatu zen aurrena, Frantziako Iraultzaren ondoren. XIX. mende hasieratik aitzina, Aturrin eta Errobin *baro* izeneko askakuntzak jarri ziren modan, inbertsore pribatu ugariaren eskutik. Sare-sistema mekanizatu horiek etengabeko arrantza autonomia egitea ahalbidetzen zuten, baina oso erasokorrak ziren ibaietako izokinen populazioentzako. Gehiegizko arrantza arriskuak larrituta, 1926an bertan behera gelditu zen haien erabilera.

Bidasoan ere aldaketa garaia izan zen XIX. mendea. Zubernoako nasa izen bereko monasterioa desagitearekin batera galdu zen, Frantziako Iraultzaren ondoren. Handik gutxira, 1856an, Espainiak eta Frantziak Baionako Tratatu sinatu zuten, eta horren arabera Bidasoaren erdian finkatuta gelditu zen bi estatuen arteko muga. Hondarribiak itsasadar osoaren gainean zuen jabetza desagertuta, Elorregiko nasa desagitea beste aukerarik ez zuen izan; hori bai, Frantziako Gobernuak kalteordain mardulak ordainduta. Egituraren aztarnak itsasbehera denean ikus daitezke oraindik, Biriaturako autobidearen zubi azpian.

Gainera, 1859an araudi berri bat onartu zen Hondarribia, Irun, Urruña, Biriatur eta Hendaiako herriarrei izokina arrantzatzeke, eta mugaren bi aldeetan saltzeko eta erosteko askatasuna aitortuz. Herri bakoitzean izokinak harra-patzeko baimena zuten bizilagunen erroldak egiten hasi ziren, bakoitzaren sare-kopurua urtero berrikusiz. Egutegi mugatua onartu zen, eta urtero zozketa egiten hasi ziren, arrantzarako lehen txanda nori egokituko: lapurtarrei ala gi-



**IBAIAN ARAUK
JARTZEN ZITUZTENEK
BAZEKITTEN ZEIN ZEN
ARRAINAREN BIOLOGIA,
ETA HORI KONTUAN
HARTU GABE EGITEN
BAZITUZTEN LEGEAK,
SEGITUAN KEXATU OHI
ZIREN ARRANTZALEAK.
IZAN ERE, GAUZA BAT
GARBI ZEGOEN: IZOKINA
DESAGERTZEA DENON
KALTERAKO ZEN**

puzkoarrei. Alabaina, behin monopolioak desagertuta, beharrezkoa izan zen espeziearen kontserbazioa bermatuko zuten neurriak hartzea ere. Garaiko dokumentazioak argi erakusten du kezka hori; besteak beste, baimendutako arrainen gutxieneko neurriak ezarri ziren, baita kaltegarriak gerta zitezkeen tresnak mugatu ere. *Sare-xeha* izeneko, adibidez, 1897an debekatu zen, izokin gaztegiak harapatzea eragiten baitzuen; itsasadarraren ahoan kokatzen zen *txinga*, berriz, 1927an. Kanabera bidezko arran-

tzari zegokionez, pertsonako hiru ale baino ezin ziren harapatu, tre-tzak debekatuta.

Urumea bailaran nabarmenak izan ziren aldaketak XX. mendean. Aldaketak, bai arrantza metodoengatik, bai eta errioko populazioak berak jasandako beherakadengatik ere. 1950eko *Munibe* aldizkariko artikulu batek dioenaren arabera, 1900. urtean Urumea ibaia ezaguna zen erakartzen zituen arrantzaleengatik eta turismoagatik. Gerra Zibila iritsi aurretik, 1933-36 artean, izokin asko arrantzatzen zen oraindik Urumean. Urteko 2.000 kilo inguru izokin arrantzatzen zela dago dokumentatua, 200 ale arrantzatzen zirelarik urteko, eta urte onenetan, 300. 1939ko martxoaren 14an, Nekazaritza Ministerioak agindua bidali zuen Gipuzkoa osoko ibaietan, -Bidasoa kanpoan utzita, bertan nazioarteko ituna baitzegoen indarrean- izokinak sareekin arrantzatzea debekatua zegoela adieraziz. Hortik aurrera, beraz, kainaren bidez arrantzatu beharko zen.

LEGEAK ETA ARAUK EZAGUTZAN OINARRITUAK

Dokumentu askotan irakur daitekeenez, izokin-arrantzak garrantzia eduki izan du herritar askoren eta familien ekonomian, eta, beraz, baita haien biziraupenean ere. Badira dokumentuak non adierazten den ofizio hori dela familia baten bizitzeko modu bakarra. 1879an, Donostian: "Industria hori zen haien familien sostengu bakarra"; edota 1880an, Donostian ere bai: "Izokin-arrantza da familia askori, eta zehazki ollokiegitarrei, bizitzeko baliabideak ematen dizkien jarduerak bakarra".

Diru-sarrera horiek, ordea, ez ziren soilik etxe-mailan geratzen; ikusi dugun moduan, udalek ere errematean ematen zituzten nasak eta izokin-arrantzarako baimenak diru-iturri ziren hainbat udalherri-



Elorregiko nasaren aztarnak
Bidasoa ibaian, Biriatuko
autopistaren zubi azpian.

JOSU NARBARTE

rentzat. Horrek guztiak gatazkak eta liskarrak ekarri izan ditu, sortzen zen interesa handia zelako. Hori saihesteko, legeak eta arauak jarri izan zituzten bertako agintariek. Horiek garatzeko orduan, baina, arreta ematen du ondo asko ezagutzen zutela izokinaren bizi-zikloa eta biologia. Alegia, arauak jartzen zituztenek bazekiten zein zen arrainaren biologia, eta hori kontuan hartu gabe egiten bazituzten legeak, segituan kexatu ohi ziren arrantzaleak. Izan ere, gauza bat garbi zegoen: izokina desagertzea denon kalterako zen. Alegia, arrantzak jasangarria behar zuen,



**IZOKINAREN ARRANTZA
DEBEKATUTA EGONIK,
SORTZEN DIREN GATAZKAK
BESTELAKOAK DIRA:
ARRANTZA ILEGALA, ERREKEN
KUTSADURA, IZOKINAREN
UMATZE GARAIAN
IBAIAN HASITAKO OBREN
ERAGINA, EDOTA ZENTRAL
HIDROELEKTRIKOETAKO
PRESAK**

etorkizunean ere izokina egotea beharrezkoa baitzuten.

Ezagutza horren zenbait adibide aurki daitezke ahozko eta idatzizko iturrietan. Santa Katalinan ezin zela arrantzatu kexatu ziren arrantzaleek, esaterako: "Izokina, normalean, martxo inguruan hasten da errioan gora igotzen. Hil horretatik ekaina arte, izokin handiak igoko dira, eta azken honetatik abuztura, txikiak. Ibaian sortuko diren kumeak igotzen joango dira beti hurrengo urteko martxora arte...". Eta 1905ean arrantzaleak kexatu egin ziren, "Urumea ibaian sortu diren presek arae-



tan oinarritzen diren baldintzak betetzen ez dituztenez, izokinek ezin dute erriogan gora igo, arrautzak jarri ohi dituzten gunetara, eta hala, itsasora itzultzen dira, eta beste erriotara joan. Hala, egunez egun izokina desagertzen ari da Urumeatik, eta harekin batera aberastasuna ere badoa”.

Hernaniko *Burbunak eta etsayak* proiekturako elkarrizketatua izan zen Joxe Oiarbide *Ttanttua* arrantzaleak ere adierazi zuen izokin arrantzan ibiltzen zen jendeak duen ezagutza, eta are eta kuriosoagoa dena, nola lortzen zuten ezagutza hori: “[Izokinak] bi urte hemen

[erriogan] egiten ditu. Nazabal izeneko gunean, Ereñotzuko kanala zegoen lekuan, erriogan behera zihoa zen izokin kumeak harrapatzen genituen, eta guraizearekin isats-punta txikia moztzen genien, eta berriz ere ibaira bota... eta laugarren urtean azaltzen ziren (itsasotik bueltan, arrautzak erriogan jartzerat). Haietako bakarren bat azaltzen zen laugarren urtean berriz ere hona. Hortxe, bi kilo eta erdi, hiru kilokoak azaltzen ziren”. Alegia, izokinak jaio ziren ibai berera itzultzen ziren, eta noizbehinka harrapatzen zituzten haiek guraizeekin markaturiko izokinak.

IZOKINA: ONDAREAK ARRAIN FORMA DUENEAN

Hasi Ekaingo kobazuloetatik eta erdi aroko eskuizkribu zaharretatik pasatuta, gaur egungo aldundi eta Eusko Jaurlaritzako paper ofizialetara, izokinak beti izan du bere txokoa, bere izena euskal gizartearen oholtzan. Ez da gutxiagorako, arrain horrek gure gizartean izan duen garrantziak, ikusi dugun moduan, utzi duelako bere arrastoa.

Gaur egun, bukatu dira herriarren arteko liskarrak eta haserreak. Izokina berreskuratzek berak guztion parte-hartzea eta indarra behar baititu, eta arrantzatzea debekatu ta egonik, sortzen diren gatazkak bestelakoak izan ohi dira: arrantza ilegala, erreken kutsadura, izokinaren umatze garaian ibaian hasitako obrek duten eragina, edota zentral hidroelektrikoetako presek haien migrazioan egiten duten oztopoa dira, besteak beste, aldian-aldian azaleratzen diren berriak.

Izokinaren egoera gorabeheratsua da Euskal Herrian, ibaiaren ezaugarrien eta problematiken arabera kudeatu behar baita bertako populazioa. Hala, administrazioek izokinak berreskuratzeko planak dituzte garatuak. Dokumentu zaharretan jada ikusten den moduan,

oraindik ere izokinari birpopulatzeko kumeak askatzen dira urtero; horrez gain, azken urteetan errioretako uren kalitatea berreskuratzeko lanek ere izan dituzte euren emaitzak arto batzuetan. Hor da, esaterako Urumea, 70eko hamarkadan apenas izokinik zuen, eta egun ehundik gora jasotzen dituen urtero; edota Oria ibaia, oraindik ere hobekuntzarako bide luzea badu ere, izokina berriz ikusi duena azken urteetan. Baina badira oraindik ere uraren kalitatea hobetzeko beharra duten ibaiak, edota, hori lortuta, orain errekaen hidromorfologian eta hidrodinamikan lan egin behar dutenak, eta arrainaren habitata kontuan izan, berreskurapen lanekin hasteko. Egin beharreko lanen artean dago, esaterako, izokinaren behetik gorako migrazioa erraztea, errute-leku berriak aurki ditzan, eta goitik behe-rakoan zentral hidroelektrikoetako turbinetara joan ez dadin.

Ez du erronka txikia izokinaren kontserbazioak. Haren banaketa-eremuaren muga, klima aldaketak Euskal Herriko ibaietan izokin-populazioen etorkizuna baldintzatu dezakeela diote adituek. Historiarretik gaur egunera, izokinak giza-kiak jarri dizkion oztopoei aurre egin behar izan die, eta lortu du, hein handi batean, korrontearen kontra aurrera eginez. Etorkizunean ere bide bera egitea geure esku dago, neurri handian.

Izokinari buruz hitz egiten dugunean, beraz, ez dugu soilik Euskal Herriko ibai batzuetan aurki daitekeen eta “interes bereziko” espezie moduan katalogatuta dagoen arrain bati buruz hitz egiten. Euskal gizartean eraman duen bideak eta utzi duen aztarnak, berez dira garrantzitsuak izokina kudeatzeko garaian, duen garrantzi historikoa-gatik ere zaindu behar izateko. Izokina, arrain forma duen ondarea ere badelako. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.antza.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160

LASARTE-ORIA

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus